

**UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE
AGENTZIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 2017ko UZTAILAREN 21eko
BILERAREN AKORDIOEN AKTA**

BERTARATUTAKOAK:

Gobernu Kontseiluko kideak:

Cristina Uriarte andrea,
lehendakaria
Adolfo Morais jauna,
lehendakariordea
Eva Ferreira andrea, Agentziaren
zuzendaria
Nekane Balluerka andrea,
UPV/EHUko errektorea
José María Guibert jauna, Deustuko
Unibertsitateko errektorea
Vicente Atxa jauna, Mondragon
Unibertsitateko errektorea
Enrique Amezua jauna
Fermín Garmendia jauna
Iker Martín jauna

**EZIN ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:**

Pauli Dávila jauna
Esther Dominguez andrea
Esther Gimenez-Salinas andrea
Guy Haug jauna
José Luis Iriarte jauna.

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzaren (Kale Nagusia 85, 48013 Bilbo) C1 aretoan, 2017ko uztailaren 21eko 12:30etan bildu da UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseilua, Cristina Uriarte andrea buru dela. Alboan adierazitako jaun-andreak bertaratu dira, honako gai-zerrenda honekin:

1. 2017ko maiatzaren 15eko akta irakurri eta onartzea. (O).

Akta onartzen da.

2. Lehendakariaren txostena.

3. Zuzendariaren txostena.

4. UNIBASQ-eko lanpostuen mailen beresleipena.(O)

Mailen beresleipena onartzen da.

5. Ebaluazio teknikari berri baten kontratazioa lanaldi partzialean, 2016-2019 Programa-Kontratuaren helburuak betezeko. (O)

Kontratazioa onartzen da.

6. Galderak eta eskaerak.

(O) Onarpen puntua.

Zuzendariak gonbidatuta Aitor Zurimendi jauna, zuzendari ondokoa, dator.

Gai-zerrendarekin hasi baino lehen, Gobernu Kontseiluaren idazkaria den Esther Dominguez andreak, bilerara etorri ezin izan duenez, saio honetan Enrique Amezua jaunak lan hori egitea proposatzen du lehendakariak. Proposamena aho batez onartzen da.